



Saunako elkarriketak Manuel Lekuonan.- Lan eta Lan antzerki taldeak proposatuta, Erreteriatik gurera etorri ziren ostiralean Itzartu antzerki taldeko kideak kultur etxean emanaldia ematera. Sarrera ona izan zuen antzerki amateurraren girako lehen emankizunak, 150 pertsona bildu ziren Manuel Lekuonako areto nagusian. Antzerki arina izan zen, Sauna batean giroa, hainbat emakumeren arteko elkarriketa dibertigarriak entzun eta ikusteko aukera izan zen. Gaiak askotarikoak: sexua, osasuna, moda, zahartzarua, amatasuna, gizonak... Umore ukituarekin jorratuta betiere. Tarteka, musika eta koreografiekin jantzi zuten "Sauna deluxe" izeneko antzerkia. Ikusleek ilunabar polita igaro zuten barre algaraka eta amaieran txalo-zaparrada luzea jo zieten. Antzerki amateurraren girako bigarren zita datorren larunbatean izango da, Orratz antzerki taldeak Kale Gorrian emanaldia eskainiko du. Oraingo honetan, Lezotik etorriko dira Lasarte-Oriara, Kukuka dantza eta antzerki eskolak gomendatuta. Sarrerak, internet bidez, 3 eurotako prezioa izango du; leihatilan 5 euro ordaindu beharko dira.

3 HEZKUNTZA Aurrematrikula garaia gaur irekiko da

Lasarte-Oriako ikastetxeetan izena emateko epea ireki da gaur. Bi edo hiru urte dituzten haurren gurasoek haien seme-alaben hezkuntza bermatuko duen eskaintza hobereana aukeratu behar dute. Udalak laguntza emateko asmoz, herriko ikastetxeen informazioa bidali du etxeetara.

4 GIZARTEA Xirimiri elkarte epaiketa eta ospakizun artean

35/02 sumarioan edo Herriko Tabernen auzian epaitzen ari dira Lasarte-Oriako Xirimiri. Maiatza alderako espero dute Madrilgo Entzutegi Nazionalaren sententzia. Bitartean, elkarteak mende laurden betetzen duela eta, urteurrena ospatzeko ekintzak prestatzen dihardute bazkideek.



5 GIZARTEA Urteberri eguneko eraso sexista gaitzetsi du herriak

1a 200 herritar bildu ziren larunbat eguerdian Okendon urtarrilaren 1ean herriko emakume batek jasandako bortxaketa saiakera salatzen. Ostiralean gainera, Udalak bat egin zuen deialdi honekin eta emakumeari bere babes osoa agertu nahi izan zioten alderdi guztiek.

NTRA. SRA. DE ARANZASU IKASTETXEA (JESUITINAS)



**Matrikulazio epea
Otsailaren 3tik 14ra**

- 0-16 urte hezkuntza: Haurtzaindegia / Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza / DBH
- Kristau zentroa eta baloreen hezkuntza.
- Itundutako zentroa.
- Eskola eleanitza.
- Haur txoko 07:30etik.
- Eskolaz kanpokoak.
- Jangela.

ALTO DE ERRONDO 121, 20009 DONOSTIA
Tel.: 943 21 23 07

WEB: <http://www.jesuitinasdonostia.com/>

Adituak dio



Bixente Beltran

Musikaria

*Kanta kantari gaztea dabil
Santa Yageda bezperan
Ohitura zaharrak indartu nahirik
Kalez kale ari gero*

Aspaldiko usadioa da Euskal Herrian baserri baserri Santa Ageda bezperako eske-koplak kantatzen aritzea. Diotenez, ohitura Erdi Aroan kokatzen da, eta "Santa eskean ibiltzea" esaten zaio.

*Neure kristauak badakizue noiz
degun Santa Ageda gure zaharreneko
usadioa kantatzen gatz
atera. Gobernadore Peleermokuk
aginduria bazuen Santa Ageda
hain zen ederra haren andretzat
nahi zuen. Gizon handia izanagatik
neska garaitu ez zuen Lehen-
dabiziko jipoi gogorak horrela
hartu zituen. Bere bularrak ebagiteko
labanarekin ondolik Negar-
garrizko tristorarekin osoz
bularrak kendurik.*

Kopla diotenez, Santa Ageda Sizilia aldean martiritzua hil zen, eta dirudienez, Santa honen debozioa Euskal Herrian oso zaharra da. Honen lekuko dira, Barandiaran, Aita Donostia, Azkue hala nola beste zenbaitek bildutako hainbat eta hainbat kopla eta bertsoak.

Badiurdi Lasarten ere ohitura aspalditik geure artean dugula. Izan ere, jakin ahal izan dudanez, orain dela urte asko, gaueko ordu txikitan Hernanitik (arteana auzo bat ginen) etortzen ziren baserri baserri kantatza. Geroztik, Zabaleta auzo elkarteak ohitura berreskuratu eta urtero iritien dira auzo eta baserrietatik kantatzen. Ohiturak aldatzen doaz eta, jakina den bezala baserri-
tik kalera jauzi eginez usadioa aspaldian herri eta hirietako kaleetan ikus dezakegu. Lasarten ere Ttakunek bultzaturik, bertso eskola eta Xumelakoak batera iritien hasi ziren, eta beraien makilak astinduz kopla eta bertso kantari ikus ditzakegu herriko kaleetan.

*Santa Ageda bezpera degu Euskal Herriko eguna Etxe guztiak kantuz
pozteko aukeratu deguna. Santa maitea gaur hartu degu gure bideko
laguna Haren laguntzaz bete genduzake
egun hortako jarduna.*

Santa eskea

Santeriak martxoko lehenengo asteburuan izango dira Lasarte-Orian, hilabete eskas geratzen da egun horietarako baina giro horretan murgiltzen laguntzeko biharko hitzordua dugu.

Santa eskean aterako dira herriko hainbat talde ohitura zaharri eusteko. Santa Agedari eskainitako koplak abestuko dituzte makilekin eritimoa markatzen duten bitartean.

Hauen artean iaz Ttakunek berreskuratu zituen abestuko dituzte bertso eskola eta Xumelako lagunek. 1953. urtean Manuel Lekuona Brigitarren komentuan zegoela idatzi zituenak.

Herrian egindako egonaldian Lasarteko ohiturak sustatzeko asmoz hainbat bilera eta ekintza sustatu nahi izan zituen apaizak herritar gazte talde batekin elkarlanean.

Horietako batek altxor moduan etxean gorde zituen koplak eta iaz berri ere kantatu egin ziren.

Zaila da jakitea herrian noiztik dagoen baserri kantuan ateratzeko ohitura. Zaharrenek betidanik ezagutu dutela diote eta azken batean belaualdiz-belaualdi pasa da. 60-70 hamarkadetan behintzat, eskean ateratzen zirenak gizon gazteak, kintoak izan ohi ziren, soldaduskar joan aurretik, ondoren bizilagunek emandako janariarekin afari ederra egiteko.

Zorionez Lasarte-Orian oraindik badira taldeak usadioarekin jarraitzeko prest daudenak baina egia da ere, gazte gutxi ikusten dela hauen artean. Lekukoa lehenago edo beranduago hartu beharko da ohitura galtzen ez uzteko beraz, ez galdu aukera eta atera oles egitera.

Hitz eta pitz

Santa Ageda bezperako ohitura galtzeaz?



Marian Bueno

Nik uste dut herriko jendeak parte hartzen duela, ume txikiak ere bai, baina pena ematen dit gazteek ez dutelako interes gehiegi jartzen ohitura hauek mantentzeko. Gehienbat helduak ikusten ditut kalean koplak kantatzen, eta lekukoa norbaitek hartu behar duela uste dut. Helduok ere badugu ardura gazteak animatu behar ditugulako ohitura zaharrak gal ez daitezen.



Sheila Lopez

Egia esan ez daukat ezagutza handirik ohitura zahar honen inguruan. Bartzelonakoa naiz eta badakit makilak hartuta zerbait egin edo ospatzen dela. Halakoetan jende heldua ikusten dut gehienbat. Dena den, garai bateko ohitura asko mantentzen direla uste dut. Esaterako, Santo Tomas egunean haurrekin ateratzen naiz, baina Santa Agedan ez.



Aizkoaitz Egia

Euskal tradizio bat den aldetik, polita izango litzateke usadio zahar hau mantentzea. Azkenean, gurea den ospakizun bat da. Orain gazte jendeak ez dauka hainbeste konprometea Santa Ageda egunarekin, lehenagotik hasitakoekin jarraitzen dute gehienbat. Baina uste dut gurasook saiatu beharko genukeela gure seme-alabei ohitura zaharrak erakusten.




Pedro Otaño

Ni gaztetan ateratzen nintzen Santa Ageda bezperan eskean eta Euskal Herrian dugun ohitura politenetako bat dela iruditzen zait. Ez dut uste Lasarte-Orian galtzeaz dagoenik, taldeak ateratzen dira, baina gazteen artean sustatzeko agian zerbait egin beharko litzateke. Batez ere jende heldua ikusten da kantuan eta pena da gazteek honetan parte ez hartzea.

Iruditan

Ohitura zaharra

Ez da jakin noiztik datorren Euskal Herrian Santa Agedaren omeneko ospakizuna. Tradizionalki Santa Ageda umeak mundura ekarri berri zituzten emakumeen zaindaria zen eta ume jaio berriari esnerik eman ezin zioten amek santa horri eskatzen zioten laguntza. Ospakizun honen lehenengo erreferentziak Euskal Herrian XIX. mendekoak dira. Ostein besteak beste Azkuek XX. mende hasieran Euskal Herrian zehar Santa Ageda bezperan kantatzen ziren koplen bilduma osatu zuen herriz-herriz zeuden aldaerak erakutsiz. Lasarte-Orian Manuel Lekuonak 1953an idatzi zituenak iaz berreskuratu ziren.



Iaz Ttakunek berreskuraturako Manuel Lekuonaren koplak.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Ezzagire, Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Aruti, Asier Odriozola, Ione M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informazioa:

Xabier Amador

HEZKUNTZA

Aurrematrikula egiteko garaia

Gaur zabaltzen da epea herriko eskoletan



Zumaburur lehenengo eskola eguneko irudia, aurten 159 umerentzat izango da lehenengo ikasturtea.

Herrian bada hezkuntza eskaintza zabala eta udalak honen berri ematen duen informazioa helarazi du matrikulatzeko sasoiaren dauden umeen etxeetara "Aukeratu ongi orain" eta "Lasarte-Orian duzu nahi duzuna" lelopean. Aurrematrikula egiteko lehenengo eguna gaur izango da eta azkena otsailaren 14a.

TXINTXARRI

Udalak herriko ikastetxeen eskaintza jasozten duen informazioa bidali du matrikulatzeko garaian dauden umeen etxetara. Bi eta hiru urterekin eskolan hastea egokitzen zaie 2011 eta 2012 jaiotako haurrei.

Herriko hezkuntza ibilbidea 0-3 urte artekoentzat udal haur-eskolan, Andre Joakina-Enean hasten da.

Ondoren Haur Hezkuntza, 2-5 urte, eta Lehen Hezkuntza burutzeko 6-11 urte artekoa,

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu eskolak dituzte aukeran Lasarte-Oriako gurasoek. Bigarren honetan bilera egingo da bihar Zumaburur 17:30ean.

Seigarren maila bukatuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak gauzatzeko Landaberri BHI eta IES Lasarte-Usurbil BHI-ra jo dezakete gaztetxoak eta azkenik, batxilergoko ikasketak egiteko, 16-18 urte bitartean, IES Lasarte-Usurbil BHI-n logeko aukera.

Honetan eskaintzen diren

batxilergoak, Giza eta Gizarte-Zientziak eta Zientziak eta Teknologia dira.

Euskara nagusi

Herrian dagoen hizkuntza ereduari dagokionez, D eredu da Lehen Hezkuntza amaitu artean bi ikastetxeek eskaintzen dutena, hau da, dena euskaraz. Izan ere "esperientziak erakusten duenez, D ereduaren bidez iristen da gaztelaniarekin batera euskara egoki menderatzea eta haurra elebidun bihurtzea" dio Udalak banatutako informazioan.

DBH eta Batxilergoa egiteko aukeran berriz euskara eta D eredu apustua izan arren, B eredu elebiduna eskaintzen da baita Landaberri BHI eta IES Lasarte-Usurbil BHI-n ere, hala ere, "euskara ongien menderatzeko aproposena D eredu da".

INAUTERIAK

Euskal Inauterietarako entseguak

Euskal Inauterietako konpartsak martxoaren 2an, Inauteri igandearen dantza egiteko entseguak egingo ditu otsailaren zehar. Hauek irekiak dira eta parte hartu nahi duten herritar guztiak joan ahal izango dira.

Entseguak bihar hasiko dira eta hilabeteko astearteetan izango dira, hau da, otsailak 4, 11, 18 eta 25, Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko Sasoetako gimnasioan. Saio guztiak 20:00etatik 21:30era egingo dira.

MEGABA

Atarrabian esperientzia trukea

Lasarte-Orian Errege Magoen kabalgata antolatzen duen MeGaBa elkarteak Nafarroako Atarrabia herrian lan bera egiten duten lagunekin topaketa egin zuten. Bertan kabalgata gauzatzeko lana ezagutzeko aukera izan zuten eta azaldu moduan, "2015eko kabalgata antolatzeko ideia askorekin bueltatu gara".

Hala ere Lasarte-Oriako elkarteak halako ekimen bat antolatzeko jende gehiago behar duela azaltzen du eta horregatik herritarrek animatzen dituzte honetan parte hartzera. "Karrozarekin zein jantziekin lagunduko digun jendea behar dugu".

Egun 20 bazkide inguru dira elkartearen eta berriak ongietorriak izango direla diote horretarako www.megaba.es weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.



ZINEMA

Itsaspeko altxorak Manuel Lekuonan

Danak Kide elkarteak udala eta Donostiako Itsaspeko zinemaldirekin elkarlanean Itsaspeko zinema zikloa antolatu du hirugarren urtez. Lehenengo saioa gaur izango da Manuel Lekuonan 19:30ean. Gaurkoan "Marina del Este" eta "Isora: Historia de una manada de calderones" lanak ikusi ahal izango dira. Lehenengoak 16 minutuko iraupena du eta bigarrenak berriz, 52 minutu. Azken honek eskuratu zuten Donostiako Itsaspeko zinemaldiko sari nagusia. Hurrengo saioak otsailaren 10 eta 17an izango dira. Denak Manuel Lekuonan 19:30ean eta doan dira beraz, antolatzaileek herritarrek film hauek ikustera animatzen dituzte.

Inauterietan taberna kudeatzeko deialdia

Inauteriak gainean ditugu eta udala egun horietarako ekinga egitaraua osatzen ari da.

Honen baitan, udalaren Gazteria, Festak eta Kirolak departamentuak herriko irabazi asmorik gabeko elkarteak eta entitateei eskaintzen die aukera Inauteri hauetan Okendo plazan jarriko den karparen barruko taberna kudeatzeko.

Inauteriak martxoaren 1ean eta 2an izango dira Lasarte-Orian eta egun hauetan taberna jarri eta ustiatzeko ardura izango du eskaera egiten duen elkarteak.

Gabonetako Haur parkean esaterako, ASIDEL herriko langabetuen elkarteak eskuratu zuten bertako sarrera eta taberna kudeatzeko eskumena bigarren urtez.

Udalak programazioan ezer ez dagoenean ere, taberna honen kontrola taldeak hartuko duela azpimarratzen du baldintzetan.

Bestalde, tabernatik ateratako etekinak bere osotasunean talde edo elkartearentzat izango direla jakitera ematen du udalak.

Deialdi ireki honetan parte hartzera gonbidatzen ditu udalak herriko elkarteak.

Otsailak 15

Interesa duten talde guztiak, otsailaren 15a baino lehen Udaltxeko erregistroan haien eskaria egin beharko dute.

Eskaera egiterakoan taldeak aurrez justifikatu beharko du gaitasun eta pertsonal nahikoa baduela taberna bi egun horietan kudeatzeko.

Proiektuek oniritzia jaso ondoren, talde guztiak zerrenda bat osatuko du udalak eta inauterietako tabernaren kudeaketa noren esku geratzen den erabakitzeko zozketa bat egingo dela jakitera eman du.

5. edukiontziko batzordea lanean da PSE-EEren aburuz

Lasarte-Oriako PSE-EEK LEHBilduk hondakinen kudeaketari buruz egindako agerraldiari erantzun dio prentsa ohar bitartez.

PSE-EEK jakin arazi duenez, "5. edukiontziko batzordea" lanean da.

Alderdi sozialistak azpimarratzen duenez, 2011. urtean hartutako erabakian "5. edukiontzia ezarri baino lehen, alderdiek sistema hau ezarri duten beste herriei eta hainbat teknikari eta adituei informazioa eskatu eta hauek aztertu behar direla aipatzen da".

Pauso hau urtarrilean

zehar eman dela jakitera eman du PSE-EEK. "Orain batzordeak 5. edukiontzia ezartzeko beharrezkoa den partida erabaki behar du," gaineratzen dute oharrean.

Alderdi sozialista bat dator EHBildurekin herritar guztiak biziklapenaren aldekoak direnarenkin, baina guztiak atez atekoaren alde ez daudela oharatzen du.

Era berean, oharrean aipatzen duenez, EHBilduren keinua estrategia hutsa ez izatea espero du. "Borondatea bada, hau 2014 urteko aurrekontuetan islatzea espero dugu".

Xirimiri elkartearen sententziaren zain

Herriko tabernen aurkako epaiketaren sententziaren esperoan dagoela, 25. urteurreneko ospakizunak prestatzen ari da Xirimiri elkarte

35/02 sumarioaren epaiketa da Herriko Tabernen auzia. Beste 110 herriko tabernarekin batera epaitzen ari dira Lasarte-Oriako Xirimiri. Herriko elkartearen kasuan ez dago pertsona inputaturik, baina egoera horretan dauden 34 lagunei 6 eta 10 urte arteko espetxe zigorra erordakie. Maiatza alderako espero dute Madrilgo Entzutegi Nazionalaren sententzia. Bitartean, Xirimirik mende laurden betetzen duela eta, urteurrena ospatzeko ekintzak prestatzen dihardute bazkideek.

TXINTXARRI

Garzon epaileak duela hamabi urte irekitako sumarioa da 35/02, Herriko Tabernen auzia izenarekin ezagunagoa dena. 2002ko maiatzaren 2an Xirimiri elkartearen itxeko agindua eman zuen epaileak eta kontuak blokeatu zituen.

Gerora, Xirimiri berriro jarri zen martxan, Entzutegi Nazionalak azken epaia eman arte behintzat.

Gaur gaurkoz, akusazioa frogatu perizialak aurkezten ari da epailetara eta martxoan sartuko da epaiketa azken fase erabakigarrian. Sententzia apirilera edo maiatza aldera ematea espero dute.

Prozesu luzea izaten ari da. Urtarrilaren 9an epaiketa bigarren fasean sartu zen eta martxoaren 19rako aurreikusitena da fase honen amaiera.

“Epaiketaren garbi ikusi da inolako argudio edo frogarik ez dutela, gure ekintza kultural eta politikoen gainetik zigorrik ez dagoela”, adierazi du

Maider Izagirre Xirimiriko bazkideak.

Era berean, sententziak izan ditzakeen ondorioez ere hitz egin du: “Xirimiri desjabetzeko eta bertako bi langileak kaleratzeko arriskua ikusten dugu, izan ditzakeen koste pertsonal zein ekonomikoek gain”.

Iazko urriaren 14an herriko tabernen auzia bezala ezagutzen den 35/02 sumarioaren epaiketari ekin zitzaion SEGren aurkako 26/11 epaiketarekin batera.

Denera 80 pertsonari baino gehiagori leporatzen die Entzutegi Nazionalak erakunde armatuko kide izatea edota herriko tabernen kudeaketarekin ETA finantziatzea. Tartean dago Xirimiri, eta denbora guzti honetan hainbat ekimen burutu dira herriko elkarteak bizi duen egoera salatzeko.

“Sufirimendu fasea gainditu eta aukera politikoa guztiekin errespetu oinarri izango duen egoera behar dugu, eta kontrako norabidean ematen



Ostiralean Xirimiri elkartearen bertan prentsurrekoak eskaini zuten Maider Izagirre eta Tomas Arruti bazkideek.

diren urratsak baztertu egin behar dira. Inoiz burutu behar ez ziren prozesuak ditugu hauek, ez baitute inolako oinarri juridikorik”, adierazi du Maider Izagirrek.

Prensurrekoan bildutako guztien izenean inputatuztat “absolutzioa” eskatu eta “epaiketa politikoak” amaitzearen beharraz aritu da Izagirre: “herri honen parte bati bere ideiak defendatzea ukatzen zaion unetik herri osoa kondenatzen dute, herriarentzat ateak zabalik edukitzeagatik zigortu nahi gaituzte, herriari bizia emateagatik, herriarekin lan egiteagatik”.

Urteurren gazi-goza

Xirimirirentzat urak handi datozen garai hauetan, mende laurdena beteko du 2014an. Urteurren berezia ospatzeko herriarrien eta eragile ezberdinen parte-hartzea nahiko lukete elkarte bazkideek.

Ekimen ezberdinak prestatzen ari dira horretarako, hasteko, apirilaren 26an Pirritx, Porrotx eta Marimototsek emanaldia eskainiko dute Manuel Lekuona kultur-etxean auziperatuei babesa agertzeko.

Bestelako ekintzak ere egingo dira: herri bazkaria, Buruntzara txangoa, hitzal-

diak, film proiektzioak, kontzertuak... Baina bereziki maiatzaren 24 eta 25eko aste-buruak hartuko du garrantzia, 25. urteurrena jaialdi handi batekin ospatzeko asmoa baitute Okendo plazan.

“Oraindik hainbat hari lotzeke ditugu, baina egitaraua finkatzen herriarrei jakinaraziko diegu”, adierazi du Izagirrek.

Amaitzeko, lanean jarraitzeko “konpromiso irmoa” agertu eta “bakoitzaren ekarpen txikiak” epaiketa politikoak gelditzea posible dela nabarmendu dute Xirimiri elkarte bazkideek.

Makila doinuak, Santa Agedari oles egiteko

Bihar Santa Ageda bezpera dugu. Lasarte-Orian goiz eta arratsaldean makilak hartu eta kalera oles egitera aterako dira herriko hainbat talde. Haur, gazte zein helduak izango dira makilaren konpasean Ageda Saindari ohore egingo diotenak.

Ikastetxeak

Etzeko txikiak haien eztrariak sano dabiltzala erakutsiko dute.

Landaberri Ikastolako txikiak izango dira lehenak. Ikastolan edo herriko kaleetan haien koplak kantatu entzuteko aukera izango da. Landaberri LH-en berriz, Zubieta alderantz egingo dute bidea.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak zaharrenek goizean Zumaburuko txikiak abestuko diete eta arratsaldean, 16:30ean, gurasoek gozatu



Bihar Santa Ageda bezperako erronda egingo dute hainbat taldek, besteak beste, Xumela korua eta Earra! bertso eskolako kideek.

ahalko dute gaztetxoek Santa Eskeaz.

Baserrietan eta kalean

Xumela abesbatza eta Earra! Bertso eskola, Erketz dantza taldea, Zabaleta auzokoak eta

Amalur Trikitixa eskolakoak ere ohitura zaharrak gorde eta Euskal Herriko eguna ospatuko dute.

Zabaleta auzoko lagunak 18:00etan aterako dira Antonio Blas plazatik. Urtero

bezala lehenengo auzoan eta ondoren inguruko baserrietan kantatuko dute, azkenik Goiegi jatetxean bukatu eta bertan afaltzeko.

Ordu berean, Amalur eskolako txistulari, trikitilari

eta panderojoleak eskolatik aterako dira eta Lasarte-Oriako erdigunean oles egingo dute.

Erketzeko eta Erketzeko lagunak taldeko dantzariak 18:30an dute hitzordua. Hauek ere, erdigunean hasiko dute ibilbidea, baina Kaxkarro aldeko baserrietara ere hurbilduko dira Santa eskea egitera.

19:00etan, Xumela abesbatzako eta Earra! Bertso eskolako kideen lehen doinuak entzuteko aukera izango da Jalgin. Ohi bezala, Santa Ageda kantauak eta bertsolarien koplak tartekatuko dituzte, erdiguneko kale eta tabernetan. Ama Brigitarrei ere bisita egingo diete.

Ttakunek, Xumelak eta Bertso eskolak herriarrek gonbidatu nahi dituzten ohitura jarraituz, abestera.

Eraso sexista gaitzetsi dute herritarrek

Larunbatean eraso sexiten aurka elkarretaratze jendetsua egin zen Okendon

Herriko emakume talde batek eraso sexistak salatzeko deitutako elkarretaratzearekin bat egin zuten herritar askok. Okendon jendetsua bildu zen urtarriaren 1ean herriko emakume batek jasan-dako bortxaketa saiakera salatzeko. Ostiralean udalak bat egin zuen deialdi honekin eta emakumeari bere babes osoa agertzea gain, deialdi honekin bat egitera deitu zuen. XXI. mendean gure kaleetan halakorik gertatzea ez dela salaketa hutsean geratu behar esan eta Ertzaintzari ikerketa azkartzeko eskaera ere egin zioten udal ordezkariak.

TXINTXARRI

Urtarriaren 1ean herriko emakume batek bere etxeko portale aurrean bortxaketa saiakera bat pairatu zuen.

Azaldu zuten, parrandatik bueltan zetorren eraso jazo zenean. Emakumeak ez du ondo gogoratu gertatutakoa baina konturatu berak bere portal aurrean zegoen lurrean etzanda bere gainean gizezkoa zuela, bere ezpainen aurka zapi moduko bat estutuz. Zapien zegoenak bere efektua egin aurretik emakumeak erasotzaileari ostikada bat ematea lortu zuen eta honek ihesari eman zion.

Gertaera honen berri oste-

gunean herriko emakume talde batek eman eta salatu zuen Okendon egindako agerraldian. Larunbatean halako erasoen aurka elkarretaratze egiteko deia ere luzatu zuten.

Herritarren erantzuna erabatekoa izan zen.

Larunbatean hainbat lasarteoriatarrek elkarretaratze egin zuten Okendo plazan halako erasoak salatu eta errepika ez daitezen eskatuz "Nahikoa da eraso sexistarik ez!" lelopean.

Elkarretaratzean bildu ziren ia 200 lasarteoriatarrek 30 minutuko isiltasun irmoz gaitzetsi zituzten gisa honetako erasoak.

Ostiralean, bestalde, Lasarte-Oriako udala osatzen duten alderdiek agerraldia



la 200 herritarrek egin zuten bat eraso salatzeko elkarretaratze deialdiarekin.

egin zuten eraso gaitzetsi eta ekamumeen ekimenari bere atxikipena emanez.

Pablo Barrio alkateak euskaraz eta PSE-Eeko Lourdes Acevedok gaztelera, alderdi guztiek adostutako testua irakurri zuten. Agerraldian PPko zinegotzia den Vanessa Velezek ezin izan zuten egon baina bere babesa azaldu zuela argi

utzi nahi izan zuten bertaratu-takoek. Eraso gaitzesteaz gain, emakumeari elkartasuna eta laguntza eskaini zioten.

Udalaren babesa eta salaketa

Alderdiek adostuta, honako azaldu zuten: "Udalak babes erabatekoa agertzen dio bortxaketa saiakera jasan duen neskerari, eta bere familia eta lagunei. Udalaren babes osoa dute, eta bidelagun izango gaitzute, nahi duten neurrian, aurrerantzean eman beharreko urratsetan.

Salaketa irmoena adierazi nahi dugu izandako bortxaketa saiakera kasuaren inguruan. Ez da onargarria, mingarria eta errepikaezina da, izugarria eta oso larria gertatu dena. XXI. mendean, gure kaleetan halakorik gertatzea ez da salaketa hutsean geratu behar den zerbait. Udalak Ertzaintzari ahal den neurrian ikerketa azkartu dezala eskatzen dio gertatu dena argitu eta prozedura judicialari hasiera emateko. Udalak konpromiso irmoa agertzen du, halakorik berriz errepikatu ez dadin beha-

rezko neurri guztiak hartzeko. Gertaera larria, salagarria, mingarria da. Baina ez hori bakarrik, herritarren arteko bizikidetzaren arriskuan jartzen dute halakoek, pertsonaren askatasun individuala eta intimitatea urratu baitute. Honen aurrean, Udala ez da isilik geratuko, baina garrantzitsua da: ez da hitzetan soilik geratuko.

Amaitzeko berri ere ozen esan behar da hau ez dela kasu isolatua. Oraindik ere emakumeen aurkako indarkeria egotea ahalbidetzen duen egitura oso baten ondorio zuzena baizik. Horregatik, kasu hauek sufritzen dituzten emakumeei salaketa egiteko deia luzatzen diegu gure babes osoa izango baitute".

Udalak larunbateko elkarretaratzean parte hartzeko deia luzatu zien herritarrei eta komunikabideei halako gaiek beharrezko duten ardurarekin jokatzeko eskatu. "Gertaturikoa larria ez ezik mingarria ere badenez, erasotak eta familiak merezi eta beharrezko duten intimitatea bermatzea exijitzen dugu".



Udala osatzen duten alderdien ordezkariak agerraldia egin zuten eraso gaitzesteko adostutako adierazpena plazaratzeko.



LASARTE-USURBIL
INSTITUTUA

bihe+

Matrikula
otsailaren
3tik 14ra





• D.B.H.
• BATXILERRA

Zure
aukerak



www.instilasarte.hezkuntza.net

lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

ERRUGBIA.-



Seniorrekin bost lasarteoriatar aritu ziren larunbatean: R. Yurramendi, I. Galarraga, U. Urruzola, D. Vega eta A. Amonarriz. Azken honek entsegua egin zuen bere debut egunean.

Errugbia protagonista Michelinen

Babyauto ZRT/Beltzakek 41-0 irabazi dio Eibarri

Sei Nazioen Torneo entzutesua hasi den asteburu berean, Michelingo zelaia futbola aparkatu eta errugbiari eman dio protagonismoa. Larunbat arratsaldean Beltzakeko infanti-lerk Hernaniren aurka galdu egin zuen, baina seniorrek erakustaldia eman zuten Eibarren aurrean.

TXINTXARRI

Partida handia jokatu zuen Babyauto ZRT-Beltzak taldeak larunbatean. Hasi eta buka jaun eta jabe izan ziren, igoberriak izanagatik, Euskal Ligako hirugarren postuari eutsiko diote Eibarren aurkako partida irabazita.

Seniorren neurketa hasi aurretik ordea, J.C. Ibisateri

omenaldia egin zion Beltzakek. Resu alargunari eta Jon eta Mikel semei lore sorta eta oroigarri bat eman zizkien klubak. Era berean, haren bazkide zenbakia erretiratu egingo dutela adierazi du Beltzake taldeak.

Bestalde, Ander Rekondo 21 urtez azpiko Gipuzkoako selekzioarekin aritu zen asteburuan, Nafarroari 10-0 irabazi zioten.

Entrenamendua

Ostiral arratsaldean, entrenamendu berezia izan zuten Ostadar Beltzak Gure etxea taldeko gazteek. Biarritz Olympique taldeko aholkulari, jokalar ohi eta errugbian aditu diren Ben Lost, Daguerre anaiak, Bernard, Francis eta Gilles eta Coeurveilé Frantziako selekzioko jokalar ohiak izan baitziren kirol gunean.

Gazteek ederki egin zuten lan eta asko ikasi zuten saio honetatik.

Ostean, indarrak berreskuratzeke Udaberri elkartearen afaldu zuten Zarautzeko klubeko lagunekin batera.



Biarritz Olympique taldeko aholkulari eta jokalar ohiak Michelinen izan ziren: Ben Lost, Daguerre anaiak, Bernard, Francis, Gilles eta Coeurveilé.

FUTBOLA.-

Meritu handiko berdinketa Realaren aurkako neurketan

Balentriatzat defini daiteke Ostadarreko kadeteek Euskal Ligako 21. jardunaldi honetan egin dutena.

Probintziako selekzio modukoa den Realari zuka egin dio Ostadarrek, hika ere bai tartera eta bere aukeretan uneoro sinetsiz, talde urdin-beltza sorpresa emateko zorian egon da. Azken emaitza, banako berdinketa.

Dena den, Real aurreratu zen markagailuan. Lehen zatia amaitzeko bost minutu falta zirela, kolpe animiko gogor samarra hartu zuten Ostadarreko mutilek zuzeneko falta jaurtiketa baten bitartez Real aurreratu zelako.

Halere, herrikoek ez zuten amore eman, serio jarraitu zuten lanean, eta 67. minutuan Beniren erdiraketa bikaina probestu zuten Unai Iribarrek markagailuan behin betiko berdinketa jartzeko.

Eguraldi txarra izan da partidako protagonista, giro ezatsegina egiten zuten futbollean jokatzeko, ez zen norgehiagoka bikainik ikusi, baina urrezko puntua poltsikoratuta gustura ziren jokalar, zale eta entrenatzaileak. Saiklapenaren erdialdean jarraituko dute hortaz, eroso antzean.

Datorren astean beste talde historiko baten aurka jokatu du, Alavesen aurka



Eguraldi petrala izan zuten larunbat goizean Michelinen, haizea, hotza eta euri-zaparrada indartsuak.

hain zuzen, Gasteizen.

Emakumeak kopan

Bestalde, Ostadar SKT-ko emakumeen taldeak asteburu honetan kopa lehiaketa hasi du Hondarribiaren aurka.

Lehen fasea bere multzoko

sailkapeneko bosgarren postuan amaitu zuen, 13 puntuarekin.

Ondorioz, bigarren fase honetan kopa jokatu du emakumeen taldeak.

Aerioak Eibar, Hondarribia, Antigua Luberrri, Amara

Berri, Usurbil eta Iintxa dira.

Txapelketa bi itzulietara jokatu dute eta lehen sailkatua izango da kopako irabazlea.

Ostadarreko neskek aurrean egoteko lehiatuko dira.

Agenda

Asteazkena 05, 21:30ean, Jalgi Kafe-Antzokian



Irlandako mendietan barrena

Ttakun K.E. antolatzen duen bidaia diaporamen saioak gaur hasiko dira. Lurralde ezberdinetan barrena eramango gaituzte otsaileko lau asteazkenetan. Aste honetan, "Kerry Way, Irlandako lurretan barrena" izenpean Iñaki Erauskin herritarrak Irlandara egindako bidaia azalduko du. Euskaraz.

Igandea 09, 19:30ean

Helduentzako zinea, atalean "Tres bodas de más" komedia ikusteko aukera izango da. Sarrera, leihatilan, 5,90 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz.



Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 08, 21:30ean

Lezoko Orratx! taldeak Kale Gorriantzezlana eskainiko du. Sarrera, internet bidez, 3 euro; leihatilan, 5 euro.

Musika

EL BAR DE MAU

Larunbata 08, 20:00etatik aurrera

Big Sound System eta Capitan Lambretta dj-en eskutik, reggae, soul, rhythm and blues, boogaloo, ska eta jazz saioa izango da. Orduak dantzan igarotzeko aukera.

Lasarte-Oria

Urpeko zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 03, 19:30ean

Urpeko zinema zikloaren lehen saioa izango da. "Ekialdeko Marina" eta "Isora: Kalderoi-talde baten istorioa" filmak ikusiko dira. Gaztelaniaz.

Astelehena 10, 19:30ean

Urpeko zinema zikloaren saioa izango da. "Koralezko Itsasoa" euskaraz, "The Ocean Brothers" eta Gosearen Legea" filmak ikusi ahaliko dira.

Astelehena 17, 19:30ean

Urpeko zinema zikloaren azken saioa

izango da. "Kapitainaren bertsoak", "Baja", "Harrizko bihotza" eta "Baso sorgindu baten itsasoa" filmak laburrrak eskainiko dira.

Santa Eskea

ZABALET AUAZO

Asteartea 04, 18:00etan

Zabaleta auzoko lagunak auzoan eta inguruko baserrietan aterako dira eskean aterako dira.

ZUMABURU IKASTETXEA

Asteartea 04, 18:30ean

Erketz eta Erketzeko lagunak taldeak

herriko kaleetan eta Kaxkarro aldeko baserrietan egingo dute oles.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Asteartea 04, 18:00etan

Earra! Bertso-eskola eta Xumela koruko lagunak erdialdean izango dira kantuan.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 09, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Caminando entre dinosaurios" filma izango da. Sarrera, leihatilan 3,70 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz

Bakarrizketa

ABEND KAFE ANTZOKIA

Larunbata 08, 23:59ean

Gemma Martinezek umorezko bakarriketa eskainiko du. Mikel Bermejo herritarrak aurkezle lanak egingo ditu.

BAI Topaketa

VILLA MIRENIXUN

Osteguna 06, 19:00etan

BAI plataformako I. Topaketan barruan, Patxi Meabek "La salud democrática de la convivencia" hitzaldia eskainiko du. Gaztelaniaz.

Herritarren txokoa

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak astartetan ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeke 2. solairuan. Interesa duten herritarrak gerturatu daitezela klase orduetan.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Antxon Aguirre Sorondo gogoan

Gure mutiko denboran, Oriako kapelaua zen On Jose Maria Arrizubieta apaizak askotan aipatzen zigun esaldi bat burura etorri zait une honetan, "mundu honetan bidenabar gaude, noiznahi bidea bukatzeko arriskua dago eta prestatuta egon behar dugu, bitartean lagun hurkoari lagundu eta on eginez".

Hitz hauen ondoren, berri txar bat azaldu nahi dut, Antxon Aguirre Sorondoren heriotza, hain zuzen. Minbiziak jota zebilen azken aldi honetan eta joan den ostiralean zendu zen gizon zintzo, jakintsu, apal, zuhur, atsegin eta langile nekazain hau. Hernani jaio zen 1946 urteko martxoaren 4an eta aspaldi honetan Donostian bizi zen.

Nik, 1987. urtean ezagutu nuen, telefono dei baten bitartez, Lasarte-Oria aldiakaria sortu berri. Gure proiektuaren berri iritsi zitzaioala eta beste hainbat herritako aldiakarietan ere idazten zuela eta gurean ere bere lankidetzara musu-truk eskaintzeko prest zegoela esan zidan. Guk, bai pozik hitza hartu ere.

Geroztik, alero, bat hutsegini gabe, kalkulaezinezko lana egin du aldiakari honen bitartez, Lasarte eta Oriako kondaira sakon eta zuzen azaltzen. Lan miresgarria benetan berea.

Horrez gain, gure herriari buruz eta bere historia jasoaz hiru liburu bikain idatzi zituen Lasarte-Oriako udalaren diru-laguntzaren bitartez argitaratu ahal zirenak. "Lasarte-Oria/Hogei Urte eta Hainbat Mende", "El Mundo Laboral de Lasarte-Oria" eta "Oria una comunidad de vida, un espacio de trabajo".

Lasarte-Oria, gizaldietan herri ezberdinen mende zatituta egon ohi zenez, idatzita azaltzen ziren hainbat aipamen kanpotik edo zeharka begirata idatzita zeuden, nahiz, esan behar den, barrendik ikusita idatzitakoak ere badirela. Orain, Antxon Aguirre Sorondori esker, Lasarte eta Oriako iragana atal eta gai ezberdinetan banatu eta sakonki jorratu eta idatzita gelditzen da jakin mina duenarentzat. Azkeneko hogei eta bost urteotan, beste hainbat eta hainbat lanez gain, Lasarte-Oriaren alde benetan lan bikaina eginda joanda.

Antxon Aguirre Sorondo antropolari ospetsua eta idazle trebea eta egokia izan da eta bere ibilbide luzean dozenaka liburu argitaratu ditu Euskal Herriko kondai antropologikoa sakonduaz, eta horrez gain, milaka artikulua argitaratu dira aldiakari ezberdinetan eta hainbat egunkarietan. Hedatzaile egoki eta atsegina zenez hamaika hitzaldi ere emana da. Lasarte-Orian ere, Danok Kide elkartearen egoitzan sarritan aritu ohi zen urteetan zehar bere jakinduria hitzaldi eta ikastaroen eskaintzen. Lasarte-Oriako nire bulegoan ere hainbat herritar ezberdinek hamaika tertulio gozo izan genituen berarekin gure herriko historia jasotzen duten liburuak idazteko orduan.

Aztartze lana zuen gogoko eta, mundu zabaleko hamaika bazter ikusita joan da. Azturtu, antolatuta eta zuzenduz ondoren idatzi edo jendeari irakastea zen bere grina eta helburua mundu honetan.

Gure herriak esker ona zor diolakoan nago. Nerea badagokio oraintxe. Goian bego.

Sebastian Kerejeta

Sasoeta-Zumaburu herri-ikastetxea

Herrikoa, solidarioa eta etorkizunari begiratzen diona



Euskal kultura eta euskara bultzatzen ditugu, geureak direlako

Elkarbizitza proiektua: eskolako partaide guztiak elkarrekin joateko

Agenda 21 proiektua: inguruarekin bat eginez Ingelesa: atzerrira begira



Teknologia berrien erabilera: irratia, aldizkaria, informatika,... gure tresnak direla

Behar berezia duten ikasleentzako: gertuko jarraipena eta aholkulariak

Liburutegi eta mediateka zerbitzua Eskola orduz kanpoko jarduerak

Haur Hezkuntzako ikasleentzat goiz txokoak Jangela zerbitzua Garraio zerbitzua



<http://www.youtube.com/watch?v=IVpZKS66q-I>
Sasoeta-Zumaburu eskolako aurkezpena

Haur Hezkuntza
Zumaburuko eraikinean

Lehen Hezkuntza
Sasoetako eraikinean

BILERA EGUNA

Otsailaren 4ean
17:30ean Zumaburuko egoitzan

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Otsailaren 3tik 14era
Kalbario bidea 4 Tel.: 943 361226
Zumaburu 13 Tel.: 943 362274



Lasarte-Orian,
geure herrian!

